


# PR-Gi 3007

## Aizkorbeko urak jarraituz

13,7 Km / 4 h 15 min

### NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

### RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




Luzera | Longitud
13,7 km

Desnibela | Desnivel
+384 m / -401 m

### MIDE

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo | MIDE ordutegia Horario MIDE | + info MIDE |
|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 2 | 3 | 3 | 4 h 15 min | www.mide.montanasegura.com |
| **Arrisku-faktore bat baino gehiago dago**<br>Hay más de un factor de riesgo | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Bide mailakatua edo zoru irregularra**<br>Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares | **3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia**<br>De 3 a 6 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK | |

### Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

### + INFO

**Praktika onen dekalogoa**
Decálogo de buenas prácticas

**www.gipuzkoanatura.eus**
**Trackak eskuragarri**
Tracks disponibles

### Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

**Animaliak larratzen**
Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

### Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Monolitoa**
Monolitos

## PR-Gi 3007

### Aizkorbeko urak jarraituz

Urola Garaiaren muturretako batean gaude eta mendiek jasotzen dituzten uren emariak nahieran doaz haran batera edo bestera. Aizkorbe inguruetan nabarmena da hori, errekatxo eta ubide artean. Urari etekin osoa ateratzen zaio hemen: tokiko pago ederrak elikatzen ditu euriak, eta inguru honetan eraikitako urtegiak hornitzen ditu inguruko biztanleak.

Nos encontramos en un extremo del Alto Urola, donde el caudal de agua que recogen las montañas desciende a capricho hacia un valle u otro. Esta tendencia se puede observar perfectamente en los alrededores de Aizkorbe, entre riachuelos y cauces. Aquí se le saca todo el provecho al agua. La lluvia alimenta a las hermosas hayas, y los habitantes de alrededor se abastecen con el embalse construido en la zona.

### Interes puntuak | Puntos de interés

a



BRINKOLAKO HERRIGUNEA: Legazpiko herrigunetik 2 kilometrora dagoen auzoa da. Bertan, San Agustingo ermita eta ofizio zaharren eraikinak nabarmentzekoak dira: Igeralde errota eta ogiaren museoa; eta Olazar burdinola. Hala ere, gune honen bereizgarri nagusietako bat 1846 urtean eraiki zen tren geltokia da. Dirudienez Oñatiko Udalaren eskaera bat izan zen. Hasierako ustiapena Norteko Konpainiaren esku geratu zen, denborarekin RENFEren menpe geratu zen arte.

NÚCLEO URBANO DE BRINKOLA: Es un barrio situado a 2 kilómetros del centro de Legazpi. En él destacan la ermita de San Agustín y los edificios de antiguos oficios: el molino y el museo del pan de Igeralde; y la ferrería de Olazar. En cualquier caso, uno de los principales distintivos de este núcleo es la estación de tren construida en 1846. Parece ser que fue una solicitud del Ayuntamiento de Oñati. La gestión inicial quedó a cargo de Caminos de Hierro del Norte, hasta que fue asumida por RENFE.

b



OAZURTZAKO TXABOLAK: Norteko Ferrokarrila eraikitzen ari ziren langileentzat egin zituzten txabola hauek. Beste lan batzuen artean, ia hiru kilometroko Oazurtzako tunela eraiki zuten, oraindik ere Gipuzkoako luzeena dena. Tunel honen bitartez Zegamako geralekua eta Brinkolako (Legazpi) geltokia lotu ziren. Lanak 1860-1863 urteen artean egin ziren eta, alde bietatik batera hasi ziren lanean, garai hartarako suposatzen zuen ingeniaritza zailtasunekin.

CHOZAS DE OAZURTZA: Estas chozas se hicieron para los trabajadores que estaban construyendo el Ferrocarril del Norte. Entre otros trabajos, construyeron el túnel de Oazurtza, que con sus casi tres kilómetros, sigue siendo a día de hoy el túnel más largo de Gipuzkoa. Mediante este túnel se unieron el apeadero de Zegama y la estación de Brinkola (Legazpi). Los trabajos se realizaron entre 1860-1863 y se comenzaron por ambos lados simultáneamente, con lo que eso suponía de dificultad ingeniera para la época.

c



TUBOBIDEKO PAGO MOTZAK: Zuhaitzak mugarratzea, edo lepatzea, iraganean Gipuzkoan, eta Europa osoan, erabilitako teknika bat da. Basoak ustiatzeko modu horren helburu nagusiak animalientzako bazka eta zura lortzea ziren. Pago motz bikainak daude ibilbidearen zati honetan. Egur ikatza egiteko mozten zituztelako daukate halako itxura berezia zuhaitzok. Toponimoak ondo adierazten duen moduan, ibilbidean zehar ura garraiatzeko erabilitako tuboak ikus daitezke.

HAYAS TRASMOCHAS DE TUBOBIDE: El trasmocho de árboles es una técnica que se utilizaba antaño en Gipuzkoa y en toda Europa. El objetivo principal de ese tipo de gestión era conseguir alimento para los animales y madera. En esta parte del camino hay magníficas hayas trasmochas. Tienen esta peculiar forma porque las utilizaban para hacer carbón vegetal. Como bien indica el topónimo, a lo largo del sendero se pueden observar tubos que sirvieron para el transporte de agua.

d



BARRENDIOLAKO UHARKA: Legazpiko udalerriko Brinkola auzoan dagoen presa honek Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Ezkio eta Itsasoko herritarren ur-beharrak asetzen ditu. Bere arro hidrografikoaren azalera 4 $km^2$koa da eta 2$hm^3$ko gaitasuna du. Presa porlan konbentzionalezkoa da. Urtegiaren uharkak 48 metroko altuera dauka, 130 l/s inguruko erregulazio-ahalmena eta 10 $m^2$-ko isurketa-arroa.

PRESA DE BARRENDIOLA: Esta presa situada en el barrio de Brinkola del municipio de Legazpi surte de agua a las localidades de Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Ezkio e Itsaso. La superficie de su cuenca hidrográfica es de 4$km^2$ y su capacidad es de 2$hm^3$. La presa de hormigón convencional. La presa del embalse tiene una altura de 48 metros, una capacidad de regulación de 130 l/s y una cuenca de vertido de 10$m^2$.

arazi
Gipuzkoako Mendizale Federazioa